



PRENTSA OHARRA

Arkeologoen Europako Elkarteak joan den irailaren 4an iragarri zuen Bernan Saria, “ondarea lantzeko modu berria eta hunkigarria” gizartearen esku jartzeagatik

Santa Maria Katedraleko Atariak Fundazioari eman zaion Europako 2019ko Arkeologia Ondarearen Sariaren banaketa ekitaldia jaso du

- Ramiro González Arabako Diputatu Nagusi eta Fundazioako Presidenteak jaso du saria Felipe Criado Boado Arkeologoen Europako Elkarteko (EAA) Presidentearen eskutik, erakundeen ordezkaritza zabala bertan zirela.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 16an.- Santa Maria Katedrala Fundazioak, 2019ko Europako Arkeologia Ondarearen Saria jaso du gaur Katedraleko Atarian Felipe Criado Boado Arkeologoen Europako Elkarteko (EAA) Presidentearen eskutik. Saria joan den irailaren 4an iragarri zen Bernan. Ramiro González Arabako Diputatu Nagusi eta Fundazioako Presidenteak izan da saria jasotzearen arduraduna, Agustin Azkarate EHU/UPVko ondare arloko Ikerketa Taldeko eta Kultur Paisaiaren eta Ondarearen UNESCO Katedrako Zuzendariarekin batera.

Ekitaldiak erakundeen ordezkaritza zabala izan du, Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntz Politika Sailburua buru zela. Bera izan da ekitaldiari hasiera eman diona. Beste batzuen artean, Gorka Urtaran Vitoria-Gasteizko Alkatea, Carlos García Llata, Vitoria-Gasteizko Bikario Nagusia, Pedro Elosegui Arabako Batzar Nagusietako Presidenteak, eta Jesús Loza Gobernu Ordezkaría egon dira ekitaldian.

Bere esker oneko hitzaldian, Ahalduen Nagusiak eskerrak emateko hitzak izan ditu EAarentzat, arkeologia arloko Europako erreferentziako erakunde nagusiarentzat, Fundazioak aurrera daraman lanarengatik. Halaber, “ondarea kontserbatzeko modu berrian Europako erreferente bilakatu gaituen proiektu paregabearen” indarra azpimarratu nahi izan du.

Europako Arkeologia Ondarearen Sariak

Arkeologoen Europako Elkartearen erreferentziako erakundea da Europan arkeologia arloan, eta 70 herrialdeetako 2.500 kide baino gehiagok osatzen dute. 1999tik EAAk Europako Arkeologia Ondarearen Saria ematen die Europako arkeologia ondarearen ezagutza bultzatzeko eta

sustatzeko ekarpen berezia egiten duten proiektuei, ondarearen babesa, aurkezpena eta hobekuntza ahaztu gabe.

Urte honetatik aurrera, gainera, bi kategoria ezarri dira. Kategoria instituzional bat, ondarea, erakundearen "ohiko betebeharretatik" haraindi gordetzen laguntzen duten ekimenetarako –aurten Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedrala Fundazioak jaso duena–; eta banakako kategoria, ekarpen akademiko bikainei zuzenduta. 2019an, banakako saria Osman Kavala filantropo turkiar eta herrialde horretan dagoen Armeniako kultur ondarearen babesleari eman zaio.

Fundazioari eman zaion sariari dagokionez, Katedral batean egindako lan arkeologikoak eta zaharberritzekoak saritzen diren lehen aldia da, eta baita, 25 urteko historian, erakunde mailan, saria Estatuan ematen den lehen aldia ere.

Azken 20 urteetan, 1.800.000 bisitari inguruk katedrala "modu irekian" zaharberritzeko proiektua bisitatzeko aukera baloratu dute, onura ekonomiko garrantzitsuak ekarriz tokiko komunitatera, azpiegituretara eta merkataritzara. Hobekuntza nabarmenak ere ekarri ditu hiriko bizitza kalitatean, lurralde, nazio eta nazioarte mailako presentzia soziala eta sinbolikoa barne.

Izan ere, EAAk "Irekita obregatik" goiburua azpimarratu du, eslogan horren lehenengo erabilera Santa Maria Katedralako obratan hasi baitzen. "Ondarea eta ondarearekin erlazionatutako proiektuak lantzeko era berria eta hunkigarria da, dimentsio publikoa eta balioa lehen leerroan jartzen dituen eta Europako eta Mundu osoko Ondarearen Komunitateari onurak ekartzen dizkion ikuspegitik". Horrela, bertako proiektuez gain, Espainiako, Europako edo Amerika Erdialdeko eta Hegoaldeko beste proiektu batzuen inspirazioa izan da.

Fundazioari buruz

Santa Maria Katedrala Fundazioa, Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedrala zaharberritzeaz eta balioan jartzeaz arduratzen den erakundea da. 1999an sortu zuten Arabako Foru Aldundiak, Vitoria-Gasteizko Udalak eta Arabako Gotzaindegiak. Patronatuaren Presidenteak Arabako Diputatu Nagusia da.